

2. Getxo, Villafranca del Oria, Ernani ta Bergarako Udalak, ta «Jesusen Biotzaren Deya», «Zeruko Argia» ta «Irugafen Prantzizkotafa»-k Euskaltzaindia'ren azken aldiko deiari egin zioten ongieteria agirian jañ ta atsegifnez aflu zan.

---

*Oafak:*

1. C. Echegaray'ri Agife'ren neurtitz argitaratzekoak bialdu ziozkaten:

2. Intzagaray, Lhande ta Belaustegigoitia'k, izpafingien bidez, euskal idaztietarako eskeifntzen ziran sariketak zein eta noizkoak ziran jakinerazi zuten. Euskaltzaindia'ri dagozkion sariketa orien agiria *Euskalefiaren Alde* izeneko agerkarian ikus dezakezu (1920, mayatzeko zenbakian, 85 gar. orian); ta sariztatuak izan ziranak zeintsu ziran jakifñ nai badezu, gure uřengo zenbakiak esango dizu.

3. Gure lagun maite Domingo Agife zanaren arimaren onerako, euskaltzafñ guziak, bere Buru Azkue apaizak opaturiko meza bat, otsafilaren 17 goizean, Bilbo'ko eliza batean entzun zuten.

---

## AMAIRU TA AMALUGAREN BATZARALDEAK

(Bilbo'n Euskaltzaindia'ren bein-beineko etxean epafilaren 24 ta 25'tan).

ALKIETAN: Azkue, Broussain, Eguzkitza, Landerreche, Olabide, Urquijo, ta uřgazle diran Belaustegigoitia ta Oleaga.

Batzar orietako agiria, Eguzkitza, idazlari ordekoak, ipifñ zuan:

### I.--EPAILA'REN 24'ko BATZARA (XIII'na)

Sei euskaltzain baizik ez gifñan bildu ta, beingozko erabakirik ezin aflu genezaken, baña eguneko kiriari jafaitu genion.

*Lenbizi:* BROUSSAIN jaunak, esan zigun «académico correspondiente» adierazteko autetsi] genuan itz au: «euskaltzaintzako», bere iritziz luzegia zala ta ofen ordez beste laburago bat artu genezaken ezkerero, ori egin beař genuala. URQUIJO jaunak, ofi erantzuten, esan zuan, zeatzagoen bat idoro arte beintzat *lankide* erabili genezakela ta oftakotzat gelditu giñan.

*Bigarren:* BROUSSAIN jaunak *j*'ren abots eta idazkeratzaz itze gin zigun, berak gai ofetzaz idatzitako lana azaltzen zigularik. Lan ofetan auxe zion: «I, dan bezela, edukiren nuke Bizkaitařen eta Zuberotařen *j* frantsesa agertzeko ta aldagailu arin batekin (J. J.) Bizkaitař zombaiten, Napařtařen, Benapařtařen eta Lapuřtařen *d* adierazteko. Gipuzkoařen *jota* agertzeko *jh* edo *hj* erabil al litake».

Euskaltzain-buruak jardetsi zion euskeratzaz egingo diran lanetan bai, abotsen litxak adierazteko, izki oriek eta geyago ere beař izango dirala noski; bařia efiarentzako idazkietan ofenbeste ikur era biltzeak, naste ta kaltea lekařkela, bere aburuz.

*Gero:* Euskaltzain-buruak, adierazi zigun Agife jaunak (G. B.) Euskaltzaindia'n utzi zuan utsunea betetzeko, Altube'tař Seber, euskalari bikařia, aurfkezten zuala. Aurfkezpen ori orok onetsi genuan.

*Azkenez:* BELAUSTEGIGOITIA jaunak, euskeraren batasunera jotzeko' asmoz, idatzi zituan ogei arau irakuri zizkigun eta gabeko zortzietan batzaldi au, oi dan bezela, azken otoitzarekin bukatu zan.

## II.—EPAILA'REN 25'ko. BATZARA (XIV'na)

Atzoko batzaldi-agerian aipaturiko sei euskaltzain eta bi lankideak bildu ziran egun onetan ere Bilbo'n, Euskaltzaindia'ren beif-beifeko etxean.

Ufen dijoazen gai oyek onetsi ziran:

1. Ithur'y'ren Euskal-Irakaspidearen 12 iyeki Euskaltzaindiak erosi ta ordaindu bitza.
2. Bonaparte'ren idazki argitarakoak Aldundiai eskatu bezazkie.

3. Euskaltzaindia'ren lankide batzuek, ortarako autuak izan zirala oraindik ez dakiten ezkerro, erantzun ez duten guziaz beñiz jakin erazi bea' zaye.

4. Euskaltzain-buruak, Age're jaunari idatzi bezayo batzafetara eldu al izango otedan ala bere euskaltzain kisa utzi nayago ote-duan jakiteko.

5. Araudia irafi bedi; baña irafkayak, argitaratu baño len, Azkue ta Olabide jaunak befikusi ta zuzendu bitzate.

6. Gero, Euskaltzain-buruak idazki batzuek irakufi zituan. Altube jaunak, bere idazkian, euskaltzain izateko bere bayetza agertzen zigun. OLABIDE Abak esan zuan Eleizalde jaunaren autafkia Altube'ren alde berak zeukala ta onela, zazpi autafkiz jaun au autetsi zan euskaltzain izateko.

7. Eusko-Ikaskuntza ta Donosti'ko Udalak zioten beren idazkietan euskal-gayetan Euskaltzaindiaren erabiki oro jafaituko dituztela: Bermeo'ko Udalak ere, gai gutxi batzuek lekot, bayetz erantzuten zuan eta, azkenez, *Jaungoiko-Zale*'ren Artekariak zion Bazkunak gaurgero erabaki oriek onesten dituala; baña lenbiziko Batzaf Nagosian idazle bakoitzari nayen zuan idazkera erabiltzeko eskubidea eman zitayola ta, urengo Batzaf Nagosia egin arte beintzat, *Jaungoiko-Zale*'ren idazleak ezin beartu ditzakela. Eta besterik gabe batzaldi au ere bukatu zan azken otoitzarekin.

#### *Oafak:*

1. Broussain'ek «J'ren ots eta ortografia'z» idatzitako lan osoa gutun onen Il'n Atalean jafia dago.

2. Azken batzafetan aldatua zeukaten araura, Euskaltzaindia'ren ba'neko araudia, Azkue ta Olabide'k, befikuskatu ta be'rafazi zuten. Ori da eskuetan darabilgun 2'gafen ateraldia.

---